

**IKASTAROA**

**CURSO**



**IRUDIA ZURI BEGIRA:  
GORPUTZA, GENEROA ETA KULTURA BISUALA**

**Irakaslea:** Maite Garbayo

**LA IMAGEN TE MIRA:  
CUERPO, GÉNERO Y CULTURA VISUAL**

**Impartido por:** Maite Garbayo



Pola Weiss

**Martxoaren 5ean, astelehena**  
**Lunes, 5 de marzo**

## ***Ikusteko moduak***

Azken hamarkadetan, kultur ikerketak eta teoria kritikoa funtsezkoak izan dira irudiak eta artelanak aztertzeko. Aldi berean, artearen historiako lanabesak zaharkituta geratu dira arte garaikidearen fenomeno batzuen analisiari heltzeko. Saio honetan begiradaren eta begiratzen dugun/gaituzten moduen garrantzia aztertuko dugu, eta kultura bisualaren noziora hurbilduko gara.

## ***Modos de ver***

En las últimas décadas, los estudios culturales y la teoría crítica han sido fundamentales en el análisis de las imágenes y de las obras de arte. Al mismo tiempo, las herramientas de la historia del arte han quedado obsoletas para enfrentarnos al análisis de ciertos fenómenos del arte contemporáneo. En esta sesión analizaremos la importancia de la mirada y de las formas en que miramos y somos mirados/as, y nos acercaremos a la noción de cultura visual.



**Martxoaren 6an, asteartea**  
**Martes, 6 de marzo**

## ***Ni, objektua***

1970eko hamarkadan, esparru anglo-saxoian batik bat, pizgarri indartsua izan zen feminismoak artearen testuinguruan sartzea irudikapenaren kanonak zalantzan jartzeari bidea irekitzeko. Ikuspegi kritiko batetik eredu berriak proposatu ziren ekoizteko, hartzeko, azterteko eta norbere burua irudikatzeko, nagusi ziren iritziak hankaz gora jarritz. Proposamen asko egon da tradizioz emakumezkotasuna irudikatzeko erabili ohi izan den subjektu-objektu pareta iraultzeko, eta begiratzeko eta begiratuak izateko modu berriak proposatu dira.

## ***Yo objeto***

En los años setenta, especialmente en el ámbito anglosajón, la irrupción de los feminismos en el contexto artístico supuso todo un revulsivo que abrió el camino al cuestionamiento de los cánones de la representación. Desde una perspectiva crítica, se propusieron nuevos modelos de producción, recepción, análisis y auto-representación que pusieron patas arriba los relatos dominantes. Diversas propuestas han tratado de subvertir la oposición binaria sujeto-objeto en la que tradicionalmente se juega la representación de lo femenino, proponiendo nuevos modos de mirar y ser miradas.



Itziar Ocariz. *Mear en espacios públicos o privados*, 2001-2004


**Martxoaren 12an, astelehena**  
**Lunes, 12 de marzo**

## ***Artearen historiaren genealogia feministak***

Ulertzen hasi zenean ekoizpen artistikoa ez zela norbanako jeinu baten sorkuntza, genero, arraza, klase eta botere dinamiken barruko ariketa bat baizik, zalantzan jartzen hasi zen artearen historiaren kontakizun hegemonikoa, gizon-zuri-artista segida batean oinarritua. Saio honetan, jarrera batzuetatik eta besteetatik emakumeen gorputzaren eta sexualitatearen irudikapen tradizionala zalantzan jarri duten zenbait artistaren lana ezagutuko dugu.

## ***Genealogías feministas de la historia del arte***

Cuando empezó a entenderse que la producción artística no era la creación de un individuo-genio, sino un ejercicio inserto en dinámicas de género, raza, clase y poder, comenzó a cuestionarse el relato hegemónico de la historia del arte, basado en una sucesión de artistas-hombres-blancos. En esta sesión, se realizará un recorrido por el trabajo de artistas que desde distintas posiciones han cuestionado la representación tradicional del cuerpo y de la sexualidad femenina.



Eclipse Solar. Códice Florentino.

**Martxoaren 13an, asteartea**  
**Martes, 13 de marzo**

## ***Irudia zuri begira***

Mendebaldeko ikuspegiaren arabera irudia irudikapenean oinarrituta dago, eta horrek arteari hurbiltzeko beste modu batzuk eragozten dizkigu. Hala ere, beste genealogia batzuk eta artea eta irudia ulertzeko beste modu batzuk ere berreskura daitezke, nahitaez irudikapenezkoak ez diren beste logika batzuetatik abiatuta antolatzen direnak. Beste kultura batzuek europarrak oso bestelako irudiaren eta artearen ikuspegiak dituzte. Saio honetan gure begiradak deskolonizatzeko ariketa bat egingo dugu, mendebaldeko estetikaren mugak zabaltzen eta gaingitzen dituzten hautemate eta harreman moduak proposatuz.

## ***La imagen que te mira***

La concepción occidental de la imagen está centrada en la representación, lo que dificulta otras formas de acercarnos a lo artístico. Sin embargo, es posible retomar otras genealogías y otros modos de entender la imagen y el arte que se organizan a partir de lógicas no necesariamente representacionales. Otras culturas tienen concepciones de la imagen y de lo artístico muy distintas a la europea. En esta sesión haremos un ejercicio de descolonizar nuestras miradas, proponiendo un tipo de percepciones y relaciones que amplían y desbordan los límites de la estética occidental.



Amak Buenos Aireseko Maiatzeko plazazan.  
Madres en la Plaza de Mayo de Buenos Aires.

**Martxoaren 19an, astelehena**  
**Lunes, 19 de marzo**

## ***Gorputza jartzea***

Gorputza diskurtsoaren elementu nagusi bihurtzean arte bisualek hartu duten norabide gauzatzaile (*performativo*) esan zaionaren inplikazioak aztertuko ditugu saio honetan. Gorputza ez da ezagutzeko bitarteko gisa bakarrik proposatzen, baita *topos* gisa ere, ezagutzeko ahalbidea sortzen den leku gisa eta diskurtsoa botatzeko leku gisa. Era askotako performance-proposamenak ikusiko ditugu eta, artearen esparrutik kanpo, plazak eta espazio publikoak betetzen dituzten gorputzetara hurbilduko gara eta, haiekin, hitz egiteko eta norbere burua irudikatzeko eskubidera.

## ***Poner el cuerpo***

En esta sesión analizaremos las implicaciones del llamado giro performativo en las artes visuales, cuando el cuerpo se convierte en elemento central del discurso. El cuerpo se propone no únicamente como medio de conocimiento, sino también como *topos*, como lugar en el que se funda la posibilidad de conocer, y como lugar desde el que se enuncia el discurso. Visualizaremos distintas propuestas de performance y nos acercaremos, fuera del ámbito artístico, a los cuerpos que toman las plazas y el espacio público, y con ellos el derecho a la palabra y a la autorrepresentación.



**Martxoaren 20an, asteartea**  
**Martes, 20 de marzo**

## ***Afektuak eta maitasuna ematea***

Empatia eta afektuak, tradizio filosofikoak prozesu kognitiboen analitiko baztertuak, esperientzia epistemikoaren —eta esperientzia estetikoaren— elementu garrantzitsuak dira, ordea. Begiratzeko ditugun moduak, inguruko errealitatea ezagutzeko ditugun moduak gure afektuek baldintzatuta daude. Azken saioan, ikus-entzunezko proposamen batzuen eta besteen analitiko abiatuta, zer estetikoaren ekoizpenean eta harreran afektuen eta emozioen zirkulazioak duen garrantzian pentsatzen saiatuko gara.

## ***Afectos y transporte amoroso***

La empatía y los afectos, excluidos del análisis de los procesos cognitivos por la tradición filosófica, son sin embargo elementos centrales de la experiencia epistémica, y también de la experiencia estética. Las formas en que miramos, las formas en que conocemos la realidad circundante, están mediatizadas por nuestros afectos. En la última sesión, a partir del análisis de distintas propuestas audiovisuales, trataremos de pensar en la importancia de la circulación de afectos y emociones en la producción y recepción de lo estético.

Ikastaro honetan aztertuko da irudiek nola galderak egiten dizkiguten artearen historia tradizionalak dagoeneko baliorik ez duen une honetan egungo artearen eta kultura bisualaren hainbat adierazpeni aurre egiteko. Irudien eta egitate artistikoaren inguruan hausnarketa kritiko bat egitea proposatuko da ezagutza kokatuan, teoría feministetan edota pentsaera ez-kolonialean oinarriturik. Saiatuko gara ulertzen ez dagoela begiratzeko modu neutrorik, eta unibertsaltasun asmoan zalantzan jar daitekeela. Begiratzeko modu hegemonikoetatik urruntzean garbi ikusten da garrantzitsua dela argi eta garbi izatea nork begiratzen duen, nola begiratzen duen edota nondik begiratzen duen. Arte garaikideko irudiak eta lanak aztertuz ikusiko dugu begiradak nola jardun ohi duen alterizazio eta menderatze-harremanak markatu, naturalizatu eta betikotzeko.

Este curso analiza los modos en que nos interpelan las imágenes, en un momento en el que la historia del arte tradicional ya no es operativa para enfrentarnos a ciertas manifestaciones del arte contemporáneo y la cultura visual. Proponemos pensar críticamente las imágenes y el hecho artístico desde el conocimiento situado, las teorías feministas o el pensamiento descolonial. Intentaremos entender que no hay formas de mirar neutras, y que la pretensión de universalidad puede ser puesta en cuestión. Al alejarnos de las formas hegemónicas de mirar, se ve clara la importancia de explicitar quién mira, cómo mira o desde dónde mira. A través del análisis de imágenes y trabajos de arte contemporáneo, nos acercaremos a las formas en las que la mirada opera para marcar, naturalizar y perpetuar relaciones de alterización y dominación.

**Emanaldi aretoan, 19:00etan**  
**Ikastaroaren zenbatekoa:** 60 €  
(Museoaren Adiskideak eta  
agiridun ikasleak: 30 €)  
**Izen-ematea:** otsailaren 15etik  
aurrera. [www.artium.org](http://www.artium.org)  
**Argibide gehiago:** 945 209020

**Auditorio, 19.00 h**  
**Tarifa del curso:** 60 € (30 €  
Amigos del Museo y estudiantes  
acreditados)  
**Inscripciones en** [www.artium.org](http://www.artium.org)  
a partir del 15 de febrero  
+ **info:** 945 209020

